Lagun hori,

Departamentu horren eskaerari erantzunez, honekin batera *Gipuzkoako Lurralde historikoaren 2021eko kontu orokorra onartzen duen Foru Arauaren proiektuari dagokion genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiaztatzeko aginduzko txostena helarazten dizugu.*

Besterik gabe,

Donostia, 2022ko uztailaren 15a

Laura Gómez Hernández
Berdintasun Teknikaria
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa

**José Antonio Lapeira Oyarzabal**
Azterlanetako Atalburua
**Ogasuneko Departamentua**

**GENERO ERAGINARI BURUZKO ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO NAHITAEZKO TXOSTENA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2021EKO KONTU OROKORRA ONARTZEN DUEN FORU ARAUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA**

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egiten da txosten hau, foru arau hauek xedatutakoa betetzeko asmoz: alde batetik, *6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa* –70. artikulua–; eta, bestetik, *2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa* –27. artikulua–.

Zehazki, txostenaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez arau eta jarraibide hauetan xedatutakoa: *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren* 27. b) artikulua, eta *Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina aldez aurretik ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak, 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz* onartutakoak. Orobat, helburua da zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

**INFORME PRECEPTIVO DE VERIFICACIÓN DE LA EVALUACIÓN PREVIA DE IMPACTO DE GÉNERO RELATIVA AL PROYECTO DE NORMA FORAL POR LA QUE SE APRUEBA LA CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA PARA 2021**

Se emite el presente informe a solicitud del Departamento de Hacienda y Finanzas a fin de dar cumplimiento a lo que dispone el artículo 70 de la *Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa* y el artículo 27 de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres.*

En concreto, el informe tiene por objeto que el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres verifique la correcta aplicación de lo dispuesto en el artículo 27 b) de la *Norma Foral 2/2015 para la igualdad de mujeres y hombres* y en las *Directrices para la elaboración de Informes de Evaluación Previa del Impacto de Género de las disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa*, aprobadas por *Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral el 21 de junio de 2011*, y realice propuestas de mejora en tal sentido.

2022ko ekainaren 24an, Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu zion goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena.

Foru arau bat da; ondorioz, *2/2015 Foru Arauaren* 27.1 artikuluak ezarritakoari jarraikiz, genero eraginaren aurre ebaluazioa behar du. Eta xede horrekin, proiektua sustatu edo eragin duen organoak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioko txostena egin du, aipatutako arauko 27.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, hain zuzen ere.

Ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena egin du, *15/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak*, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Con fecha de 24 de junio del 2022, el Departamento Hacienda y Finanzas solicita al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres el informe de verificación de la evaluación previa de impacto de género sobre el proyecto arriba mencionado.

Se trata de una norma foral por lo que, de conformidad con lo establecido en el artículo 27.1 de la *Norma Foral 2/2015*, debe ir acompañada de la correspondiente evaluación previa del impacto de género. A tal fin, el órgano promotor del proyecto ha emitido el correspondiente Informe de evaluación previa de impacto de género, en los términos previstos en el artículo 27.2 de dicha Norma.

En consecuencia, este Servicio de Igualdad, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 del *Decreto Foral 15/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Área del Diputado General,* procede a la emisión del correspondiente informe de verificación de la evaluación previa de impacto de género.

EGIAZTAPENA

Aurkeztutako genero eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazio txostenak **Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021eko Kontu Orokorra onartzen duen Foru Arauaren proiektuaren deskribapen orokorra** egiten du, hura osatzen duten edukiak zehaztuz.

Jarraian, **zuzen identifikatzen du** esku artean daukagun foru arau proiektuaren **genero pertinentzia**. Izan ere, haren azken hartzaileak pertsona fisikoak dira, eta, gainera, aurrekontu ekitaldiak eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko duten gaitasunean.

Txostenak eransten du ezinezkoa dela proiektuari buruzko **genero eraginari buruzko aldez aurreko balorazioa** egitea eta, beraz, berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaileak sartzea, eragin negatiboa izan dezakeela zehazten bada; izan ere, Kontu Orokorrak aurrekontuen exekuzioari eta likidazioari buruzko informazioa jasotzen du eta egindakoaren berri ematera mugatzen da.

Jarraian, aurrekontuak egiteko ezarri den tresna berriaren bidez (EBA: Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak) lortutako **datuak aurkezten ditu** txostenak, eta adierazten du tresnak Foru Aldundiaren berdintasunerako

VERIFICACIÓN

El informe de evaluación previa de impacto de género presentado realiza **la descripción general del proyecto de Norma Foral por la que se aprueba la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2021**, detallando los contenidos que la componen.

A continuación, **identifica correctamente la pertinencia al género** del proyecto de norma foral que nos ocupa, ya que el grupo destinatario final son personas físicas y el ejercicio presupuestario afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y de los hombres.

El informe añade la imposibilidad de realizar una **valoración previa del impacto de género** del proyecto y, por tanto, de introducir medidas correctoras a favor de la igualdad en el caso de determinar su posible impacto negativo, debido a que la Cuenta General recoge información sobre la ejecución y liquidación de los presupuestos, y se limita a dar cuenta sobre lo realizado.

A continuación, el informe **presenta datos** obtenidos a través de la nueva herramienta implantada para la elaboración de los presupuestos (EBA: *Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak*), afirmando que la herramienta ha incorporado las políticas

plangintza orokorraren politikak txertatu dituela.

de la Planificación general para la igualdad de la Diputación Foral.

Datu horien arabera, 2021ean gauzatutako 1.234 milioi euroetatik, 71 milioi euro berdintasun politikei lotutako gastuari dagozkio.

Según dichos datos, de los 1.234 millones de euros ejecutados en 2021, 71 millones de euros corresponden al gasto relativo a políticas de igualdad.

Halaber, Foru Aldundiaren aurrekontu programen zerrenda jasotzen duen taula bat ere aurkeztu da. Bertan identifikatzen dira, aurrekontu programek generoaren ikuspegitik duten garrantzia (handia, ertaina, txikia), programa bakoitzaren guztizko gastua eta programa bakoitzak berdintasunerako politiketara bideratu duen gastua.

También se aporta un cuadro con una relación de los programas presupuestarios de la Diputación Foral, en el que se identifica la relevancia desde la perspectiva de género de los programas presupuestarios (alta, media, pequeña), el gasto total de cada programa, y el gasto que cada programa ha destinado a las políticas para la igualdad.

Konparazio horretatik honako hau ondorioztatzen da:

De esa comparativa se concluye que:

- Generoaren ikuspegitik garrantzi handia duten programek 522 milioiko aurrekontua izan zuten; horietatik, 64 milioi (% 12,2) Berdintasunerako Plangintzan jasotako ekintzei zegozkien, eta, azkenean, 67 milioi euro gauzatu ziren, hau da, aurreikusitako zenbatekoaren % 105,4.

- Los programas con alta relevancia desde la perspectiva de género tuvieron un presupuesto de 522 millones, de los cuales 64 millones (12,2 %) correspondían a acciones contenidas en la Planificación para la Igualdad y que finalmente se ejecutaron 67 millones de euros, es decir, el 105,4 % de la cantidad prevista.

- Berdintasunaren ikuspegitik garrantzi ertaina duten aurrekontu programen kasuan, aurrekontuan jasotako 134

- En el caso de los programas presupuestarios con una relevancia media desde la perspectiva para la

milioietatik, 5 milioi (% 3,7) berdintasunerako politikei zegozkien, eta horietatik 4 gauzatu ziren, hau da, aurreikusitakoaren % 79,9.

- Generoaren ikuspegitik garrantzi txikia duten programei zegozkien 454 milioi euroetatik, 0,2 milioi euroko (% 0,2) gastua aurreikusi zen berdintasunerako plangintzaren ekintzetarako, eta, horietatik, 0,4 milioi euroko benetako gastua egin da, aurreikusitako zenbatekoaren % 170,7.

Dena den, txostenak adierazten du egindako azterketa oso mugatua dela; izan ere, ezin baita jakin berdintasunerako politiken esparruan egindako gastuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak benetan murrizteko balio izan duen edo ez. Eta onartzen du aurrekontua gauzatzeak berdintasunean duen benetako eragina ezagutu ahal izateko, beharrezkoa izango litzatekeela ex post ebaluazio eta azterketa kualitatibo bat egitea.

Aurrekontua gauzatzeak berdintasunean duen eraginari buruzko ezagutza hobetze aldera, txostenak adierazten du 2021ean hobekuntza prozesu bat hasi

igualdad, de los 134 millones presupuestados, 5 millones (3,7 %) correspondían a políticas para la igualdad, de los cuales se ejecutaron 4, es decir, el 79,9 % de lo previsto.

- De los 454 millones de euros correspondientes a los programas de relevancia baja desde la perspectiva de género, se había previsto un gasto para las acciones de la Planificación para la igualdad de 0,2 millones de euros (0,2 %), de los que se ha efectuado un gasto efectivo de 0,4 millones que supone el 170,7% de la cantidad prevista.

El informe afirma que, de todos modos, el análisis que se realiza es muy limitado, ya que no se puede saber si el gasto efectuado, en el marco de las políticas para la igualdad, ha servido o no realmente para reducir las desigualdades entre hombres y mujeres. Y reconoce que para poder conocer el impacto real de la ejecución presupuestaria sobre la igualdad sería necesario realizar una evaluación y análisis cualitativo ex post.

Con la finalidad de mejorar el conocimiento sobre el impacto sobre la igualdad de la ejecución presupuestaria, el informe señala que en 2021 se ha iniciado, con

dela, lau aurrekontu programarekin, aurrekontuen genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena osatzeko. Ildo horretan, txostenak adierazten du lehen esperientzia pilotua dela, eta gainerako aurrekontu programetara hedatu ahal izango den metodologia diseinatu nahi dela.

cuatro programas presupuestarios, un proceso de mejora con el objetivo de completar el informe de evaluación previa de impacto de género de los presupuestos. En ese sentido, el informe también indica que se trata de una primera experiencia piloto de la que se pretende diseñar una metodología que pueda ser extensible al resto de los programas presupuestarios.

## ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Orain arte adierazitako guztiaren arabera, eta *2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak*, 27.2.b) artikuluan xedatutakoa betetzeko, egiaztatzen da *Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2021eko Kontu Orokorra onartzen duen Foru Arauaren* proiektua sustatzen duen departamentuak behar bezala arrazoitu duela 2/2015 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa erabat ez aplikatu izana.

## CONCLUSIÓN Y PROPUESTAS DE MEJORA

A tenor de todo lo expuesto, y en cumplimiento del artículo 27.2.b) de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres*, se verifica que la no aplicación de lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015 en su totalidad, está correctamente argumentada por parte del departamento promotor del proyecto de *Norma Foral por la que se aprueba la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2021*.

Hala ere, eta txostenean bertan adierazten den bezala, emandako datuek mugak dituzte eta zuhurtzia handiz tratatu behar dira. Eta hori horrela da EBAk automatikoki lotzen dituelako departamentuen ekintza estrategikoak berdintasunerako foru plangintzarekin, ekintza estrategikoen (edo nagusien) aurrekontuaren ehuneko bat esleituz lotzen diren Berdintasun Planeko ekintzei.

Sin embargo, y como se señala en el propio informe, los datos aportados tienen sus límites y hay que tratarlos con extremada prudencia. Y esto es así, porque EBA vincula las acciones estratégicas de los Departamentos a la planificación foral para la Igualdad de manera automática, asignándole un porcentaje del presupuesto de las acciones estratégicas (o principales) a las acciones del Plan de Igualdad con las que se vinculan.

Ondorioz, Berdintasun Planeko ekintzak gauzatzeko benetan bideratu den aurrekontu zehatzaren xehetasuna galtzen da, eta, beraz, ezin da zehaztasunez eta zorroztasunez ondorioztatu berdintasunerako politikara bideratutako foru aurrekontuaren zenbateko osoa.

Consecuentemente, se pierde el detalle del presupuesto concreto que realmente se ha destinado para la ejecución de las acciones del Plan para la igualdad, por lo que no se puede concluir con precisión ni rigor la cuantía total del presupuesto foral destinada a la política para la igualdad.

Ildo horretan, garrantzitsua litzateke, 2023ko EBAn, bai berdintasunaren arloko plangintza bai aurrekontu programa bakoitzaren ebaluazioa hobetzea, argi eta zehatz identifikatu ahal izateko berdintasunerako ekintzak eta horietako bakoitzari lotutako zuzeneko zenbateko ekonomikoa.

En ese sentido sería importante mejorar, en EBA 2023, tanto la planificación en igualdad como la correspondiente evaluación de cada uno de los programas presupuestarios, de cara a poder identificar con claridad y precisión las acciones para la igualdad y la cuantía económica directa asociada a cada una de ellas.

Foru arau bat denez, departamentu sustatzaileak genero eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioa egin behar du. Dena dela, arau horrek 2021eko Kontu Orokorra bakarrik onartzen du; era berean, arau hori urte horretako aurrekontuaren exekuzioari eta likidazioari buruzko informazioa ematera eta foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren berri ematera mugatzen da.

Hori dela eta, oso kasu berezia da, eta ezin da genero eraginari buruzko aldez aurreko azterketa bat egin, txosten honen xede den foru arauak dagoeneko eginda dauden jarduerak aipatzen baititu.

Hala ere, txostenean EBA aurrekontu plangintzarako foru tresnaren bidez lortutako datuak ematen dira, Berdintasunerako Plangintza Orokorrari dagozkion ekintzak garatzeko aurrekontuan sartutako eta gauzatutako gastuari dagokionez.

Se trata de una norma foral y, por ello, el departamento promotor está obligado a realizar una evaluación previa de impacto de género. Sin embargo, dicha norma únicamente aprueba la Cuenta General de 2021, limitándose a aportar información sobre la ejecución y liquidación del presupuesto de ese año, así como a dar cuenta de la situación económica del sector público foral.

Por ello, se trata de un caso muy particular en el que no es posible un análisis previo del impacto de género, ya que la Normal Foral objeto del presente informe se refiere a actuaciones ya realizadas.

Aun así, el informe aporta datos obtenidos a través de la herramienta foral para la planificación presupuestaria EBA, en relación al gasto presupuestado y ejecutado en el desarrollo de las acciones correspondientes a la Planificación general para la Igualdad.

Nolanahi ere, eta txosten honen xede den foru arauaren berezitasuna kontuan hartuta, baliozkotzat jotzen da aurkeztutako ebaluazio txostena; izan ere, dagoeneko amaituta dauden jarduketetan oinarritzen denez, ezin da horien genero eraginaren aurretiazko ebaluaziorik egin.

Azkenik, hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez, testuaren gaztelaniazko bertsioan ikusten da ahalegin bat egin dela hizkuntza inklusiboa erabiltzeko.

En cualquier caso, y dada la particularidad de la norma foral objeto del presente informe, se considera válido el informe de evaluación presentado ya que, al centrarse en actuaciones ya finalizadas, no es posible realizar una evaluación previa de impacto de género de las mismas

Finalmente, en relación con la utilización no sexista del lenguaje, en la versión del texto en castellano, se aprecia un esfuerzo por utilizar un lenguaje inclusivo.

Donostia, 2022ko uztailaren 15a
San Sebastián, a 15 de julio de 2022





Laura Gómez Hernández
Berdintasun teknikaria

Ana Agirre Sáez de Eguilaz
Berdintasun zerbitzuburua O.E.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres